



## Hilaren 30ean ebatziko dute Etxeberriaren aurkako epaia

**LIZARTZA** ▶ Espainiara eramango dituzten ala ez erabakiko du Pabeko Apelazio Auzitegiak

**DEFENTSA** ▶ Atxiloketak «legez kanpokoak» izan zirelako aske uzteko eskatu du abokatuak ▶ 6

**AMEZKETA** ▶

**Ahotsak  
plataformak  
hitzaldia  
emango du**

Helburuak azalduko dituzte, etzi balio anitzeko gelan ▶ 2

**TOLOSALDEA** ▶



HITZA

**Udan haur  
errusiarrak  
hartzeko  
kanpaina**

Bikarte elkarteak hitzaldia emango du gaur, Tolosan ▶ 3

**VILLABONA** ▶

**Greba bertan  
behera utzi  
du ELAK** ▶ 2



### Berandu baina... elurrak zuritu ditu inguruak

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Azkenean heldu da. Hilabete bateko atzerapenarekin 2007ko lehen elur malutak agertu ziren atzo gure bi eskualdeetan. Goizean goiz, kazkabarrarekin nahastuta etorri zen dama zuria —argazkian, Bidaniako ikuspesia, zuri-zuri—. Orohar, ez zuen ondorio larriegirik izan errepideetan eta jendea normaltasunez joan zen lanera. Hala ere, A-15 autobidea itxi behar izan zuten Elduain parean, bi noranzkoetan.

Elurra kentzeko makinek gogor egin zuten lan errepide horretan. Leitzaldean ere nabaritu zuten elurraren presentzia: Leitzan, 12:00ak aldera Luisen-Bordako meteorologia estazioetik emandako datuen arabera, 17 zentimetro zeuden eta Areson, berriz, 15. Iragarpenek diotenez, gaur «okerrera» egingo du egoerak eta elur kota itsasoaren mallara jaitsiko da. Bihar, berriz, izotza izango da protagonista. ESTI EZEIZA ▶ 4-5

## AMEZKETA ▶ GIZARTEA

## NEREA URBIZU

Etzi Amezketa balio anitzeko gelan Ahotsak plataformako kide batzuen hitzaldia izango da. 20:00etan bilduko dira bertan. Alderdi politiko ezberdinetako emakumeak bilduko dira eta Amezketa kasuan hauek izango dira joango direnak: Gema Gonzalez de Txabarri (EAJ), Gemma Zabaleta (PSE-EE), Jone Goirizelaia (Batasuna), Duñike Agirrezabalaga (EB), Onintza Lasa (EA) eta Aintzane Ezenarro (Aralar).

Mahai ingurua Amezketa emakume talde batek eskatuta izango da. Amezketa mahai ingurua antolatzen aritu den emakume batek esan zuenez, «ekimena partikularra izan da, bost herritar bildu ginen; herrian ere oso jende ezberdina gaude. Modu batera, Ahotsak plataforman osatzen duten emakumeekin zuzentzeko hori dugu, eta interesgarria iruditu zitzaigun haiek gonbidatzea».

# Ahotsak plataformako kideen hitzaldia, etzi

Balio anitzeko gelan bilduko dira iluntzean, eta bertan taldearen helburuak eta azalpenak emango dituzte

Urte arko daramatza Amezketa emakume talde batek elkartzen eta «urtean zehar elkarrekin egiten ditugun bospasei afariak egiten», 20-22 bat emakume. Baina «oso desberdinak gara. Hala ere, eta horretan oinarrituz ideia oso ona iruditu zitzaigun herrian Ahotsak taldearen hitzaldia egitea».

Amezketa egongo den Jone Goirizelaia, Ahotsak plataformako partaide bezala esan zuen moduan, «Ahotsak ez da alderdi politiko bat, komunean filosofia eta helburu bat duen mugimendu bat baiziki».



Tolosako uztaileko aurkezpenean hauek izan ziren, ezker-eskuin: Jone Goirizelaia, Kontxi Bilbao, Nekane Alzelaia, Gema Zabaleta, Aintzane Ezenarro eta Elixabete Piñol. NOELIA LATABURU

## ONINTZA LASA ▶ AHOTSAK TALDEKO KIDEA

## «Borondatea dagoenean zailtasun asko gainditu daitezke»

Onintza Lasa (Tolosa) EAko legebiltzarkidea eta Ahotsak plataformako kide da. Amezketa mahai inguruan hartuko du parte. Ahotsak taldeak duen lekuaz aritu da.

**Nolatan Amezketa?**

Gurekin harremanetan jarri ziren eta hara joatea erabaki dugu: eskertzekoa da benetan gonbitea luzatu izana. Ziurrenik une interesgarriak pasako ditugula.

**Zein gai jorratuko dituzue?**

Gure asmoa hasiera batean Ahotsak zer den azaltzea izango da: ekimenak azalduko ditu-

gu, eta jendeak proposatzen dituen galderei erantzunak ematen saiatuko gara.

**Zer moduzko harrera izaten ari da Ahotsak eskualdean?**

Oso ona. Tolosan osatu da talde bat. Herri bakoitzeko ekimenen araberakoa izaten da. Baina foroak sortzen ari dira abenduaren 30aren aurretik eta ondoren ere bai.

**Idela ezberdinekoak zarete: zer moduz moldatzen zarete?**

Oso ondo. Harreman pertsonalak sendotu egin dira horrela. Ariketa aproposa da, konturatzeko bakoitzak bere erreali-

tatea bizi duela eta denak direla egiazen parte bat. Enpatia ariketa hori aberatsa da arlo guztietan, eta honetan ere bai. **Ahotsak Madrilgo atentatuaren ondoren...**

Bai. Fokoa gure gainean jarri dute. Gure metodologia batzen gaituena da eta ez banatzen gaituena. Biolentzia ez dugu defendatzen, eta elkarrizketa da gure metodoa. Jende ezberdina gara eta balorazio ezberdinak egiten ditugu; halaber, gure asmoa ez da saihestea, baina bai bat egitea: bat egiten dugu biolentzia ez onartzean

eta demokrazian sinesten dugun horretan. Bakearen defentsa ez da biolentzia ez egotea bakarrik: justizia soziala, demokrazia, eskubideak, etabar. Hori elkarrizketaren eta politikaren bidez lortu behar da.

**Zein dira zuek omandako pausoak 9 hilabete hauetan?** Beno, hor gaude, jendea hori ikusten hasi da eta ezagunak izaten hasi gara: hori pauso handia izan da. Jendea konturatu da lana beste modu batean egiteko aukera dagoela, eta lan hori gudan islatzen da. **Nola ikusten duzu bake prozesua?**

Nik uste dut konponbidea posible dela. Oso baikorra ikusten dut. Borondatea dagoenean zailtasun asko gainditu daitezke. ◀

## VILLABONA ▶

## ELAk greba deialdia bertan behera utzi du

## ERREDAKZIOA

ELA sindikatuak hilaren 29rako deitua zuen greba deialdia bertan behera utzi du Villabonako Santiago egoitzak, azken unean Suman enpresak adosturik zegoen ituna sinatu zuelako herenegun.

«Aurretik adosturik genituen hainbat gai garrantzitsuetan Suman enpresak atzera egiteagatik» ELAk grebarako deialdia egin zuen joan den astean, Langileen Batzarrak aho batez hala onartu zuelako.

Sinatu duten eduki nagusiak honakoak dira: erizain Laguntzaileen soldata igotzea; 1.592 ordu langile guztiarentzat, 20 minutuko atseden lanordua bezala hartuta. Jai igandetako osagarria, aintzinasuna eta bajak: lehenengo egunetik % 100 lehenengo baja eta % 80a hurrengoak. Sindikal Eskubideak eta ordaintzen diren baimenetan ere hobekuntzak sinatu dituzte.

ELAk «oso positibotzat» jotzen du Santiagoko egoitzaren sinatutako ituna. «Gipuzkoako Lan Hitzarmenak zapuzten zituen baldintza onuragarriak mantentzeaz gain» hobetu dituzte. Garrantzitsua izan da «langileek mantendu duten jarrera irmoa, batez ere adosturik genituen hobekuntzetan enpresak atzera egin zuenean».

## ANOETA ▶

## Dantza-sokako azken entseguak, arratsaldean

## ERREDAKZIOA

Anoetako dantza-soka egunerako 3 aste falta dira. Horretarako entsegu orokorretarako deialdia egin dute: gaur Edurkan 19:30an izango da.

Aspaldiko ohitura da dantza-soka Anoetan, baina due-la hiru urte berreskuratu zuten Anoetarrok Auzolanean plataformako kultura taldean. Geroz eta jende gehiago biltzen da: aurten jada 98 dantzari eman du izena.

## iragarki laburrak ▶



Pablo Gorosabel, 46  
Leizua - 7. Inbalegia  
20-400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 55 87  
mug.: 669 368 994

**Alegia.** Eraikuntza berriko pabilioiak salgai. Azken moduluak. 350m2tik hasita.

**Anoeta.** 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

**Belauntza.** Bifamiliarra, 2 solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

**Belauntza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

**Berastegi.** Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

**Berastegi.** Familia bakarreko etxea, 4.000 m2ko lursailarekin batera.

**Berrobi.** Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.

**Irura.** San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

**Irura.** Eraikuntza berriko bi apartamentu salgai garaje eta trasteroarekin.

**Irura.** Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariek, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Ugaran Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairuko.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela

bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.

**Tolosa.** San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m2koa, eraberritua, oso eguzkitsua.

**Tolosa.** Zabalaretan, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Maituna zaharra, 15 garaje berri eta ibiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitako.

GIZARTEA ▶

# Haur errusiarrak udan etxean hartzeko kanpaina abian da

Bikarte elkarteak antolatzen du; gaur hitzaldia emango dute Tolosako Kultur Etxean programaren berri emateko

INIGO TERRADILLOS

Umezurtz-etxeetan dauden haur errusiarrak harrera familietan hartu eta beraien osasuna sendotzea du helburu bezala Bikarte elkarte ongileak. Hala, urtean zehar bi kanpaina burutzen dituzte, bata neguan eta bestea udan. Duela egun gutxi agurtu zituzten familia hartzaileek neguan Euskal Herrian hilabetez izan diren errusiar gaztetxoak, eta orain udari begira hasiak dira jada. Hain zuzen ere, otsailaren 15era arte burutuko dute udako kanpaina.

Bikarte elkarteari esker, 8 eta 18 urte bitarteko 85 ume inguru izaten dira urtero etortzen direnak Errusiako Murmansk, Lubinga edota Kandalaksha bezalako hirietan dauden umezurtz-etxeetatik.



Haur errusiarrak Donostiako Aquarium-era egindako irteeran. HITZA

Neguko oporraldia baliatuz hilabete igarotzen badute, udan, bi hilabete eta erdi egoten dira Euskal Herrian. 85 familia horietatik, 2 eskualdekoak dira, Tolosakoak eta Zizurkilgoak, hain zuzen.

Familia hartzaileen kopurua handitzeko asmoa du Bikarte elkarteak, eta hori dela-eta hitzaldia antolatu du gaur, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan. Ume hauen abegitzeaz interesaturik dagoen edota gai honen inguruko informazioa jaso nahi duen oro gonbidatzen dute hitzaldi honetara. Elkartearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, 94 636 04 31 edota 605 70 90 19 telefono zenbakira deitu beharko da.

## 10 urtez lanean

1997. urtetik arduratzen da Bikarte ([www.bikarte.org](http://www.bikarte.org)) elkarte ongilea umezurtz-etxeetan bizi diren haur errusiarren kanpaina antolatzeaz. Gallarta herrian sortu zen elkarteak duela 10 urte. Orduetik gero eta kide gehiago ditu, Bizkaia aldean batez ere. Hori ikusita, azkenaldian Gipuzkoara zabaltzen ari da erakundearen lan eremua, eta herrialde horretako hainbat familiak kanpainen parte hartu dute jada. Aurtengo udan, esaterako, 15 errusiar izan dira Gipuzkoan opor egunak igarotzen.

TOLOSA ▶

## Ainhoa Artetari urrezko domina emango diote

ERREDAKZIOA

Valentziako Musika Palaueko administrazio-kontseiluak aho batez erabaki du Ainhoa Arteta soprano tolosarrari erakunde honetako urrezko domina ematea. Datorren martxoaren 3an Palauean bertan emango duen kontzertuan jasoko du domina. Modu honetan, tolosarraren izena sari hau eskuratu duten munduko artista garrantzitsuen artean izango da.

Ainhoa Artetak 1998an estreinatua zuen Valentzian *Luna* opera. Halaber, Valentziako Orkestrarekin batera egin dituen kontzertuak asko izan dira. Bere arrakasta handietako bat, *Fausto* opera izan da. Valentziako azken emanaldia iragan azaroan izan zen, Mozart-en *Requiem meza*.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## LOURDES OSTOLAZA ETA MIREN ATXAGA ▶ BIKARTE ELKARTEKO KIDEAK

# «Haur hauen premiazko beharra, maitasuna da»

Lourdes Ostolaza zarautzitarra eta Miren Atxaga tolosarra Bikarte elkarteko kide dira. Haur errusiar bat euren etxeetan hartzearen eskarmentua dute, eta horrek izaten dituen onuren inguruan hitz egin digute.

**Noiz hasi zineten zuen etxeetan Errusiako gaztetxo bat hartzen?**

**Lourdes Ostolaza.** Nik urtebete daramat haurra hartzen. Mixa izena du mutikoak eta 9 urte ditu.

**Miren Atxaga.** Pasa den urteko udan eta neguan hartu dugu guk. Vladdi izena du eta 8 urte ditu.

**Zein da programa honen helburua?**

**L.O.** Errusiako umezurtz-etxeetan bizi dira haur hauek. Arrazoit batengatik guraso gabe gelditu diren umeak dira, eta horregatik, hainbat gabezia

bizi dituzte beraien herrian. Behar horiek asetzeko helburuz iristen dira hona, eta premiazkoen duten beharra maitasuna da, afektibitatea, ez baitute gurasorik. Ez dakite zer den familia batean bizitzea, ez dute hori ezagutzen eta horren beharra dute. Hona etortzen direnean lotura edo harreman bat sortzen da. Errusiara bueltatzen direnean ere harreman horrekin jarraitzen dugu, telefono bidez, esaterako.

**M.A.** Osasuna sendotzeko programa bat da. Abitaminosia, elikadura eskasaren ondorioak edota txertoen gabeziak izan ditzakete. Horregatik, etortzen direnean, medikua-rengana ematen ditugu azter ditzaten. Osakidetzarekin akordio bat dugu.

**Zer lortzen da gaztetxo hauek**



Heiko, bere ama Miren Atxaga eta Lourdes Ostolaza. i. t.

**hemen egonaldi bat egitearekin?**

**M.A.** Errusiatik bidaia luzea eta neketsua egiten dute hona iristeko, baina merezi du, bai berak eta baita guk ere lortzen dugunarengatik. Gure dinamikan sartzen dugu, gure egunerokotasunaren baitan, normaltasun osoz, etxeko bat izango balitz bezala.

**L.O.** Lan handia eskatzen du, baina asko betetzen zaitu. Onura handia izaten da haientzat, baina baita guretzat ere.

**Zein egoeratan bizi dira han?**

**L.O.** Klima baldintza oso gogorretan bizi dira. Pentasa, 20 edo 30 gradu zero azpitik arrunta izaten da han, eta 50era ere iristen dira. Murmansk, adibidez, abenduan eta urtarrilean ez da argirik egoten egun osoan. Eguzkirik ez ikusteak eragin oso kaltegarriak izaten ditu. Bestalde, umezurtzegie-tan egonda, ez dute elikadura egokirik jasotzen. Oinarrizko elikagaiak ematen dizkiete soilik. ◀

EGURALDIA ▶

# Hilabete beranduago mara-mara

Atzo goizean iritsi zen elurra bi eskualdeetara; goiz-goizetik, kazkabarrarekin nahastuta etorri zen, orohar ez zuen ondorio larriegirik utzi errepedetan eta jendea normaltasunez joan zen lanera

### ESTI EZEIZA

Hilabete beranduago bada ere iritsi da azkenik elurra eta hotza Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara. Atzo goizean goizetik hasi zuen elurra, kazkabarrarekin nahastuta. Orohar, kale handiegirik eragin ez bazuen ere eta normaltasuna nagusitu bazen ere zenbat ondorio ekarri zituen. Dena den, paisaien eta postaien itzurako ikuspegi edoerez gozatu ahal izan zen aspaldiko parte eskualdeko zenbait tokitan. Leitzan esaterako. Luisean-Bordakoa meteorologia estazioetik luzatutako datuen arabera 12.00ak aldera 17 zentimetro zehaten. Areson berriz, bi gutxiago.

Haurren eta ez hain gazteen gozamenarako izaten da elurra, baina, era berean, arriskua ere bilakatzen da errepedetarako. Atzo goizean, esaterako, A-15 autobidea Elduiain parean itxurik egon zen bi noranzkoetan. Herenegun goizaldetik aldtiro-alditro itxi zuten errepede hori, elurra kentzeko makinek garbi zezaten, baina, azkenean, guztiz itxi behar izan zuten, esandako parean.

### Eskoletan ere aldaketak

Berastegi, Letzan eta Bidegian bezalako herriak izaten dira urtero-urtero, elurra lehendabizirik izaten dutenak. Hori dela eta, ohitura daude elurraren ondorioetara, eta esperien-

tzia erakutsita, lehenbalehen hartzen dituzte badaezpada neurriak. Hala ere herri gehienetan normaltasunez joan ziren gauzak, eta ez zekiten gaur zer gertatuko zen. Leitzako institutuko zuzendariek atzo azaldu zutenaren arabera, «aurreikuspenek gauzak okertuzera joango dira eta esaten badute ere, normaltasunez jarraitzen saiatuko gara datoen egunetan». Beranduago bazen ere orohar haur gehienak joan ziren atzo eskolara. Arazo handiagok izan zituzten irakasleek, lantokieta iristeko, haietako gehienek beste herrietatik edo hiriburuetik joan behar izaten baitute. Esaterako, Berastegin, arazo hau ekiditeko, udalbe-ak prest du orotarako ibilgailu

bat, eta hau Tolosara bidali zuten irakasle eta udalako langileak bertaratuko. Inguruko baserrietako haurrek berriz, oinez jaitzi behar izan zuten eskolara. Jolas-orduan, karretan, partisean... jolatu behar izan zuten, kanpoan ibiltzeko eguraldi txaharregia baitzegoen.

Letzan, Haur eta Lehen Hezikuntzako eskola ere irekita egon zen egun osoan zehar. Baina baserrietako eta Ezkurako haurrak ezin izan ziren joan, errepedeak «nahiko gaizki» baitzuden goizean. Bestalde, institutuan, lehenengo hiru orduetan eskolak eman baituzten ere, 11.30ak aldera etzera bidali zituzten ikasle guztiak, eguraldiak okertuta egun baitzuten. 10.00ak aldera,

marra-mara hasi zuen elurra, eta egun guztian zehar ia ez zuen gelditu ere egun. Bestalde, goizetik faltatu ziren Gozutea eta Betelu inguruko ikasleak, autobusak arazoak izan baitzuten joateko. Hala ere, irakasle asko ere kanpokoak direnez, neurri hori hartzea erabaki zuten, hau da, eskolak etetea.

Bidegianen, obli bezala joan zen eguna, irakasleen esanetan, obli edo hiru ikasle faltatu dira, nahiko urritxi bizi direlako, baina ez da aldatzerik eman. Lehen orduetan Tolosarako nahiz Azpeitirako errepedeak estaltia bazegoen ere, paratz hasi ziren lanean elurra kentzeko makinak, eta beranduago bazen ere, irri ahal izan ziren irakasleak.

*Betiko janaria beste modu batera eta erraz prestatzeko*

liburua **DOAN!**

Otsailak 3, larunbata, kartilla + 1. kupoia berriekin

**1. ZURE KARTILLA IKURARATU**  
**2. KUPONIA ETXETARA**

**KARTILLA OSTATZAN, IKURAK ERAMAN** eta DOAN jaso! dugu liburua.

AUKERA EZAZUL BIZI EUSKALDEZ **berria**



17 zentimetroainoko elurra egin zuen atzo Letzan, n. oinea



Bidegianek postal batean jartzeko moduko ibura eder hau zuen atzo eguerdian. esi iraz.

### PELLO ZABALA ▶ APAZA ETA METEOROLOGIAN ADITUA

## «Orain datorrena hotz handia izango da»

Pello Zabala amezketarrak meteorologian aditu denak, eguraldi honen nondik norakoren berri eman digu. **Hilabete beranduago bada ere iritzi da azkenik elurra, normalean al da horren beranduago?**

Nire ustez guztiz normala da hau, bai lehenago eta baita orainago ere. Beharbada normala ere dena da udazkena eta negua horren lotuta joatea, eta hain luze egitea. Baina bestela, horiek betidanik egin ditte eta eserra zaharrei begiratu besterik ez dago: *Gabonetan bal-konian eta pazkotan su bazez...*

**Bere klima aldaketaren elurra del hor ez da horren beranduago?**

Klima aldaketak bi alor ditu: batetik, ea zenbateraino izurratu dugun klima. Bestetik beti esaten dugu, lehorrekin kalmenagatik dirudi, baina eurak dia edo uholdeak ere, eta azken batean, horiek beti izan dira. Horregatik, azalpen hori eman behar izaten dugu gure elkarrizketetan.

**Ez da ezurra hain azkarreko al da peditzen dugun ur falta?**

Ez. Gaur eguerdian arte (atzo) 42 litro egin ditte eurten eta 9 ehurten. Baina anteburuzaren ondoren beste antzikiok bat dator, eta datoen hamabost egunetan hotza egingo badu ere, ur gehiegi ez du botako. Hala ere, liurgi berriekin batera etorriko da zer bait.

**Melakoa da egiten art den elurra, kazkabarrarekin batera dator...**

Berezia da. Lehendik gure ingurunea oso bero zegoen, eta aire bero oraindik hor dago. Baina gero honen gainetik kazkabarra dator, hau elurra

haino hotzagoa da. Isortuta baitator. Hala, elur hau oso urtsua da, eta ez da batera hotza. **Dakozten egunetarako zer datur?**

Orain datorrena hotza da. Oestiralean eta larunbatean izugarriko hotzak egingo ditte, bar-

nealdean 10 gradu zero azpitik egitera iritsiko delarik. **Zela onura dakartzan elurra egiteak?**

Bestetik, euri kopurua litroetan, eta bestetik, elurra izatean, hau pixkanaka hartzen du lurrak. ◀



PELLO ZABALA

**Etxean gelditzeko zatoz Euskaltelen Saltoki batera.**

**10 urtean geroago Zatoz urtarriaren 24 baino lehenago**

**Zatoz Euskaltelen Saltoki batera**

**euskaltel ZURETARA**

## LIZARTZA ▶ POLITIKA

## ERREDAKZIOA

Atzo goizean egin zuten Gari-koitz Etxeberria eta Aritz Larrinagaren, urtarrilaren 9an Azkainen atxiloturiko uestezko bi etakideen aurkako epaiketa. Pabeko Apelazio epaitegiak hartu duen erabakiaren arabera, hilaren 30ean erabakiko du atxilotuak espainiaratu ala ez.

Atzoko epaiketan, Yolanda Molina abokatuak atxilotuen askatasuna eskatu zuen. «atxilotetak legez kanpokoak» izan zirelako. Era berean, «degedia, bi gazte hauen kontra nahi duten bezala erabili dute» azaldu du Molinak, baita «urtarrilaren 9an ez zitzairen ezer ere leporatu Frantzian eta atxilotetak Frantzia eta Espainiaren arteko kolaborazioaren ondorio izan direnez Schengeneko akordioak ez ziren aplikatu behar» adierazi ere.

Gauzak horrela, hilabetearen 30ean erabakiko dute Etxeberria eta Larrinaga Espainiara eramango dituzten ala Frantzian bertan geratuko diren, izan ere, orduantxe kaleratuko du Pabeko Apelazio Auzitegiak euroaginduarren aplikazioaren inguruko informazioa.

Bai Etxeberriak baita Larrinagak ere Tolosako espetxean jarraitzen dute preso. Ostiral honetan izango du lehenengo aldiz Etxeberriak gurasoak ikusteko aukera, bisita izango baitu. Larrinagari, ordea,

# Etxeberria Espainiara eramana ala ez hilaren 30ean erabakiko dute

Defentsak lizartzarren eta Larrinagaren askatasuna eskatu du «atxiloteta legez kanpokoak» izan zelako



Etxeberria eta Larrinagaren senitartekoak eta adiskideak epaitegi kanpoan eginiko kontzentrazioan. HITZA

oraindik ez diote bisitarako baimenik eman.

Joan den astean bezala, atzo ere Etxeberria eta Larrinagaren senitartekoak eta adiskideak Paben izan ziren atxilotuei elkartasuna adierazteko. Epai-

keta hasi aurretik lehenik eta epaiketaren ondoren gero, kontzentrazioa egin zuten epaitegiaren kanpoan. Une horietan atxilotuak ikusi ahal izan zituzten bertaturikoek kotxean pasatzen.

Askatasunak, «Euskal Herriaren kontra azken urteetan ematen ari den errepresio inboluzioa» salatu du, izan ere, euroagindua «Frantziak errepresio apustu honetan duen beste tresna bat da».

## LIZARTZA ▶

## Haimar Altuna isolaturik hilaren 29ra arte

Joan den ostiraletik Haimar Altuna euskal preso isolaturik dago Meauxeko espetxean Urtzi Zubizarreta eta Oier Goitia preso politikoekin batera. Lizartzarren senitartekoek adierazi dutenaren arabera, «kartzelan eman duten bertsioa, patorako bidean espetxeko txartela bigarren aldiz erakutsi ez izanak» eta «gaintzeko presoak patoria ez ateratzeko harturiko erabakian eragin izanak» isolatu dute Altuna.

## BERROBI ▶

## Podologoaren bisitarako izen-ematea gaur

Hilabetero bezala, Berrobiko Udalak podologo zerbitzua jarri du martxan beharra duten interesatuentzat. Hala, urtarrikoko bisita hilaren 29an —astelehena— izango da. Interesatuek, ordea, gaur eman behar dute izena. Horretarako bi aukera daude, batetik, udaletxeko bulegoetan eman daiteke izena, 15:30etik aurrera. Bestela, 943 68 32 94 telefono zenbakira deituta.

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Eskerrik asko Izaskun

Hilabete justu igaro da zure senitarteko eta herritarrengana hurbildu zinelan. Laztan eta besarkada ugari bildu dituzu. Ondo mereziak. Jaunak bakarrik daki zure bihozkadaren berriak han eta hemen zabalduak zenbat diren. «Berri ona» gertatu baitzara hainbestertentzat. Berri on aurreko ilunabar bate-

an elkarrizketa luzean entzun nizunean. Zure mintzoak eta hitzak («txotx») ziren, baina inoiz itxi gabe. Bada, euskarazko hitza zirudiena, zuk herri baten nortasun eta amets leku bezala aurkeztu zenuen.

Ekudorko bazter hura gure bihotzetaraino hurbildu zenuen: haurren eskola beharra, osasun eskasia, emakumezkoen duintasuna, osasun bideak, gazteekiko boluntariotza, etxegintzarako blokeak, bideak, eta

abar luze baten oihua. Guk, gehiegizkoa; haiek, gabezia eta hala ere, giza poza eta bihotz balioen aberastasuna.

Ez zera geldirik egon. Zure berri on misiolaria sendotzen eta suspertzen ahaleginak egin dituzu. Parrokiko gazteen aurrean zure fede naturaltasuna agertuaz. Parroki eta Ibarra herriko hainbat pertsonen aurrean zure eskaintzaren balioa oihukatuz. Askok hartu omen duzute eta nola geldituko zara, adin zoragarri honetan, osorik

behartsuenen hartan zabaldu eta oparitu gabe. Gutako bakoitzak horrelako eraginez pixka bat egunero hemen ere emango bagenu! Eta, azkenik, gaur bertan, Hitza aldizkarian, zure irribarrea eta barne sentipenak barra-barra irauliaz...

Eta laburki, bederen, eskerrik eman nahi dizkizugu. Eskerrak berri ona zarelako. Han eta hemen ere Jesus bera salbatzaile zaigulako. Esker on zabal honetan gaituzue Ibarrako adiskideak, Ibarratik Misio Tal-

dekideak, Gure Parroko Elkarre maitagarria, Ikastolako misio eragileak, zure Txiribitu Taldeko eragileak, misio senidetasa bizi nahi dugun guztiak. Denok zuregan gure pusketak jarria dugu; diruz, maitasunez, otoitzez, eskuzabalatasunez, ametsz. Hurbiltasun honetan bat eginik aurrera goazen. Agur, Izaskun eta Eskerrik asko!

EMETERIO SORAZU ▶  
IBARRATIK MISIO TALDEKO  
LEHENDAKARIA (IBARRA)

## iragarki laburrak ▶

## ALOKAIRUA

**Etxebizitza.** 60 m<sup>2</sup>ko etxebizitza alokairuan Lekunberrin. Sukaldea, egongela, bi logela eta bainugelarekin. Interesatuek deitu 679 20 14 60 telefono zenbakira.

## LANA

**Zerbitzaria.** Neska euskalduna eskaintzen da zerbitzari lanetarako. Eguerditan, astelehenetik ortialera. Interesatuek dei dezatela telefono

zenbaki honetara:  
695 75 70 45ra.

**Gitarra jolea.** Erromeri talde batek gitarra jolea behar du. Deitu 665 70 17 75 telefono zenbakira.

**Langileak.** Eskoletarako, udaletarako. Interesatuek deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

**Harreragileak.** Laguntzaileak, erakunde publikoetarako. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara 943 44 48 66.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Zure herriko albisteak kontatu nahi dizkiguzu? Sartu gure webguneko zeuk idatzi atalean eta idatz ezazu zure herrian gertatu denaren inguruko albisteak, gertaerak... Ez ahaztu zure telefono zenbakia jartzea, zurekin harremanetan jartzeko.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## LEITZA ▶ IHOTEAK



**Kolorea.** Karrozen egun handia igandean den arren, Aldaroon taldeak aurten larunbatean auto batekin ateratzeko asmoa du, lhoteei ahalik eta etekin gehien ateratzeko asmoz. Osotara, 8-10 bat lagun aterako dira larunbatean, eta beste hainbeste igandeko karrozan. N. GARZIA

## Neguarekin batera iritsiko dira ihoteak

Larunbatean hasiko dira Inauteriak eta dagoeneko herriko koadrilak karrozei azken ikutuak ematen ari dira

NAIARA GARZIA

Negua ez zela ailegatzen, baina azkenean, herriko Inauterien bezperan iritsi da, nabarmen, gainera. Herrian Inauteriak iristear daudela nabari da. Igandean, hilaren 28an izango da egun handia eta horretarako hainbat koadrila haien karrozei azken ikutuak ematen ari dira.

Gabonak amaitu eta segituan ailegatzen dira Leitzako lhoteak eta askotan, karrozak nahi baino azkarrago egin behar izaten dira. Nafarroako beste zenbait lekutan denbora

gehixeago izaten dute horrelako lanak burutzeko (baita Gipuzkoan ere), baina Leitzara etortzen lehenengoak izaten dira lhoteak.

Aldaroon izenarekin ateratzen den koadrila aurten berandu hasi da karroza prestatzen. «Lehenengo urteetan lan handia hartzen genuen. Orain, berriz, lan gutxiago egiten dugu. Aurten, gainera, berandu hasi gara, duela 3 aste inguru», dio talde honetako Joseba Sagastibelzak.

Duela urte batzuk Aldaroon izena jarri zioten karroza bati eta orduz geroztik izen hau

mantendu dute. «Larunbatean eta igandean aterako gara aurten, aurrena auto batekin, eta gero, kamioiarekin». Eguraldi txarrak kalterik egingen al dien beldurrik ez du Joseba Sagastibelzak. «Igandean elurra egiten badu, guri ongi etorriko zaigu, lotura pixka bat izan baitezake gure karrozarekin».

Orkatz Erbiti eta Eden Gastearenaren koadrilak, berriz, bi aste daramatza dena prestatzen, nahiz eta ideia aurreko urtean bururatu zitzaizen, inauterietan. Hauek karrozarekin ateratzen diren lehenengo aldia izanen da.



**Zarata.** Karroza txikia izan arren, 17 bat lagun inguru ibiliko dira honen inguruan eta zarata atera, aterako dute. N. GARZIA



**Tamaina.** Egun handia iritsi arte, karroza zain dago, Olaberriko fabrika zaharrean. N. GARZIA

### hilberria ▶



**Joxe Inaxio Areta Elizburu**  
(Jauna)

Attona maitea, zure maitasuna izan da guretzat beti lagungarri zure irribarrea momentu latzetan aurrera egiteko euskarri egun handiko elkartuko gara muxu asko attonari

Zure bilobak: irati, Maddi eta Aitor

LEZON, 2007ko urtarrilaren 24a



▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztieta prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

### hilberria ▶



**Alfredo Azanza Telletxiki**  
Jauna

BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU

CAFeko lankideek

BEASAIN, 2007ko urtarrilaren 24a

### hilberria ▶



**Alfredo Azanza Telletxiki**  
(Gurutze Sukia gure lankidearen senarra)

Baina bizitzan izan dira Badaude eta izango dira Besterik gabe, bukatu ez diren gauza asko.

Beasaingo Udal Euskaltegia

BEASAIN, 2007ko urtarrilaren 24a

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Arturo Cisneros zuzendariaren *Bagdad Rap* dokumentala, 21:30ean Gaztebean.

**Alkiza.** Aiztondoko Mankomunitateak kantu eta euskal dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen emateko edo informazio gehiagorako deitu 943693930 telefonora edo Aiztondoko Bulegora joan, Muñoa kalea 36 behea, Zuzurkil.

**Anoeta.** Anoetako aizkolariek eskualdeko aizkolarien arteko apustua antolatu nahi dute bi kanardiko eta 5 oin-biko enbor moztuz, banaka edo binaka. Izen-ematea, 943 651497 telefonon.

**Ibarra.** Otsailaren 4ean Santa Ageda bezpera ospatuko da ibarran. Goiz eta arratsaldez kantuan ibiliko dira eta eguerdian bazkaria izango da Sendi Ekintzan. Izen-ematea hilaren 26a baino lehen herriko elkarte eta ohiko tabernetan.

**Tolosa.** LAB sindikatuak deituta, elkarretaratzea izango da, Triangulo plazan, 19:30etik aurrera.

**Tolosa.** Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarrekin antolatuta, Bularreko minbizia goiz detektatzea izeneko hitzaldia izango da gaur Kultur Etxean, 17:00etan.

**Tolosa.** Ume errusiarrak harrera familietan hartuz beren osasuna sendotzea helburutzat duen Bikarte elkarteak udako kanpainari hasiera ematen dio. Hala, kanpaina zaltzeko gaur hitzaldia emango dute Kultur Etxean, 20:00etan.

**Tolosa.** Inauterietako txarangen bilera egingo dute gaur, Kultur Etxean, 19:30ean.

**Tolosa.** Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du Pirinioetara asteburu honetarako. Hiru Erregeen Mahaia eta Atxerito mendiak igoko dituzte, Linzako aterpean lo egingez. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380an.

**Tolosa.** Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, etxeko laguntza, geriatría, inmigratio teknikari laguntzailea. 200 ordu



**Bai Euskarari zozketak baditu irabazleak**

**TOLOSA ▶** Galtzaundik Eguberrietan antolatu duen Bai Euskarari zozketak baditu dagoeneko irabazleak. Hauek dira, hain zuzen ere, saridunak: Marta Garmendia Colors arropa dendak eskainitako sariarekin batetik —beheko argaz-

kia—. Eta, bestetik, Amaia Albisu Kimetz arropa dendak emandako sariaren irabazlea —goiko argazkia—. Galtzaundi euskara taldeak Colors eta Kimetz dendek luzatu duten laguntza eskertu nahi izan du. HITZA

teoriko eta 100 praktiko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.

**Tolosa.** Tolosa CFko futbolari ohiekin, 35 urtetik gorakoak, beteranoen futbol taldea osatu nahi dute. Interesatuak, ostegunetan 20:00etan Usabalen egiten dituzten entrenamenduetara joan daitezke.

**Tolosa.** 56ko kintoek bere festa egingo dute hilaren 28an: 12:00etan meza San Frantziskon eta ondoren bazkaria Usabal sagardotegian. Izen-ematea, Irrintzi eta Basarrin.

**Villabona.** 15:30ean, Bittor Ormaetxea pediatrak hitzaldi-solasaldia emango die gurasoei *Nutrizia eta arreta arazoak* haurtzaroan gaiari buruz, Gurea zinemako erakusketa aretoan, Jesusen Bihotza Ikastolaren Kultur Astean.

**Zuzurkil.** Loatzo Musika Eskolak txalaparta ikastaro bat antolatu du 12 urtetik aurrerakoentzat. Interesatuak 10:00etatik 16:00etara, Zuzurkilgo Bulegoan (Bulandegi bidea 23 behea) edo 943 692619 telefonon eman dezakete izena.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leiza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITzaren erreparazioa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adieraztako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Maria Paz Etxeberria.**  
 Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Maddi.** 3 urte. Zure osaba, izeba, guraso eta Ugaiz anaiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAREN egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAREN egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa